



Urarekiko konpromisoa...



Maila

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa.

Iraupena

Saio bat.

Helburua

Uraren erabilera jasangarria egiteko ekintza eta portaerak eta erantzukizun-balioei buruzko ekintza eta portaerak bultzatzea.

Laburpena

Guztion artean erabakitzea ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko eguneroko ekintzak, eta horma-irudi/manifestu bat egitea.



Deskribapena

Ariketa hau 'Noaga, ura eta gu' eta/edo 'Urarekin jolastuko gara' ariketen jarraipen gisa egingo da.

- **Hasiera**

Jarduerari ekiteko, urak duen garrantzia gogoraraziko dugu. Ura agor daiteke (baliabide mugatuaren ideia), eta hura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko beharra dago. Hori egiten badugu, urak izugarri eskertuko digu.

- **Ideia-jasa**

Ideia-jasa egingo dugu, ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko, eskolan, etxean, lorategian eta abar zer egin dezakegun jakiteko

- ✓ Arbelean etxea, eskola edo lorategia irudikatzen duen marrazkia egin dezakegu, eta dagokion marrazkiaren azpian horri buruz sortzen diren ideiak idatziko ditugu.

- **Erabaki dezagun**

Amaitutakoan, guztion artean aipatutako ekintzetako batzuk aukeratu behar ditugu. Erabaki hori adostasunez hartu behar da.

- ☛ Ez saiatu ekintza asko aukeratzeko. Hobe da gutxi, hurbilekoak eta bete daitezkeenak izatea, asko eta zehaztugabeak baino.

- **Horma-irudia/manifestua**

Guztionean aukeratutako ekintzekin horma-irudia/manifestua egingo dugu, eta hemendik aurrera egin beharreko ekintzak zehaztuko ditugu.

- ☛ Ekintzaren laburpen gisa ikur edo marrazki bat egin dezakezue, eta azpian, idatzi zer irudikatzen duen.
- ☛ Horma-irudia egitean, kontuan hartu ikasgelako elementu erdiiraunkorra izango dela, gutxienez hiruhileko bat egongo baita. Horrela, beti gogoan izango dituzue uraren inguruan hartu ditugun konpromisoak, eta haiek betetzen ditugun egiaztatzeko erabil dezakezue.
- ☛ Horma-irudia maila plastikoan eta sortzailean landu dezakezue, eta, horretarako, urari buruzko marrazkiak eta abar egin ditzakezue.
- ☛ Interesgarria da gainerakoei (ikasgelak, eskola, familia...) jakinaraztea zer erabaki duzuen.



- **Berrikuspena**

Oso garrantzitsua da konpromisoak berrikusteko uneak ezartzea hurrengo asteetarako, horrela, haiek betetzen diren, guztiok egiten dugun, ez betetzearen arrazoiak, zuzendu dezakegun eta abar ikusiko dugu.

- Noizbehinka datuak idatzi eta bildu, zuen konpromisoen segimendua egiteko.
- Hilabete barru taldean berrikusteko gomendatzen dizuegu.

Orientazioak

Ariketa honetan, garrantzi handia du prozesua hurrekin batera egiteak -prozesu parte-hartzailea baita- eta haien proposamenak gauzatzeak.

Horren emaitza ekintzak egiteko konpromisoa hartzea izango da, ez erabakitzea bakarrik. Horregatik, garrantzitsua da ideiak hurrek beraiek ematea eta inguruan dituzten aukeretatik ateratzea ideia horiek.

Konpromisoak hartzeko, guztion artean erabaki eta ados jarri behar dugu, denok garrantzitsuak garela sentitu behar dugu. Egingo ditugun ekintzak kolektiboak badira, erantzukizunean hezten ariko gara.